



LIBURUA

Irakurri eta antzezteko lana



NORK AGINTZEN DU?
ALAITZ OLAIZOLA
 ILUSTRAZIOAK: MANUEL ORTEGA
 EREIN, 2019

XABIER ETXANIZ ERLE

U rte batzuetako etenaldiaren ondoren berriro dugu antzerki lan bat esku artean. Alde horretatik, horrexegatik bakarrik ere, pozgarria da Erein etxearen *Antzoki Txikia* bilduma barruan argitaratu den Alaitz Olaizolaren lan berri hau. Olaizola ezaguna da arlo honetan, bilduma honetan bertan baditu eta, hainbat lan argitaratuak. Eta alde horretatik irakurtzeko eta antzezteko diren liburu hauen nondik norakoak ondo baino hobeto ezagutzen ditu.

Hasieran, Manuel Ortégaren laguntza paregabearekin ilustrazio arloan, sinopsia eta protagonistak aurkezten zaizkigu (eskola bateko bost neska-mutiko-beno, mutiko bat eta lau neska-, eta hiru estralurtar -geroago gure artean gizaki nortasuna eta itxura hartuko dutenak-). Ondoren agertokia nolakoa izan

behar den eta antzezpenerako beharko diren elementu batzuk -plastiko bat eta tabletak, esaterako- azaltzen dira antzeztanaren narrazioari, kontakizunari edo gidoiari, hobe esanda, ekin aurretik.

Egileak berak, sinopsian, adierazten digu labor-labor zein den liburuaren istorioa: "Mikelek eskola jazarpena pairatzen du. Isilean eta ezkutuan darama bere sufrimendua. Baina hemendik oso urruti, urrutiko planeta batean, izan dute gertaeraren berri, eta ez dute ezer egin gabe geratzeko asmorik".

Ikus daitekeen bezala Mikelek, obra honetako mutil bakarrak, jazarpena pairatzen du eskolan, eta bertan daudenen artean Amaia bakarrik aterako da mutilaren alde. Egoera hori, baina, ez da guztiz argia eta sinplea, erasotzaileen artean liderra dagoen moduan badira be-

ren egitekoarekin guztiz lasai eta ados ez daudenak ere. Alde horretatik liburuak balio du eskola jazarpenari buruz hitz egiteko, azaleratzeko, irtenbidea emateko gure ikastegietako gaitz horri.

Ez da esan beharrik liburu di-da batean irakur daitekeela, antzezteko egini-ko obra izanik guztiz bizia da, elkarrizketaz osatua, kontakizun labor batzuk dituela eta bederatzi agerraldi laborretan antolatua. Aipatzekoa da, baita ere, agerraldi batetik bestera agertokia aldatzeko oso modu sinplea eta azkarra proposatzen duela egileak, eta alde horretatik ziur gaude obra hau irakurtzean gozatu ahal izan dugun bezala disfrutatuko dutela beste askok antzezten eta ikusten Esne Beltza taldearen *Nork agintzen du!*, kantarekin amaitzen den emanaldia. ●